# ZALDIBIKO FESTAK 2024



## URRIAK
## 3, 4, 5, 6, eta 12

ZALDIBIAKO
UDALA
www.zaldibia.eus

# Agurra

*KAIXO HERRITAR,*

*Aurten ere mimo bereziz antolatu ditu jai batzordeak herriko festak eta datozen egunetan probatu eta gozatuko ditugu. Herriko eragile eta herritarren bultzada nekaezina lagun osatu da esku artean duzun egitaraua. ESKERRIK ASKO benetan herriko festen antolakuntzan eta lanetan aritu eta ariko zareten guztioi. Urtero errepikatzen dugun bezala, zuek gabe ezinezkoa litzatekeelako. FESTAK HERRITIK ETA HERRIARENTZAT.*

*Herritar guztiei tokia eman nahi dien ekintzekin osatu da egitaraua eta festak gure herriko balioen ispilu izan daitezen nahi dugu, ezinbestean: HERRIKOIAK, EUSKALDUNAK, PARTEHARTZAILEAK, ANITZAK ETA ELKARLANA OINARRI DUTENAK. Esku guztiak izango dira ongi-etorriak eta beharrezkoak hurrengo egunetan, lana eta gozamena uztartuz. Pisua elkarrekin ez delako pisu.*

*Eta guztion ahalegin eta arduraz ere, ASKATASUNA, ERRESPETUA eta GIRO ONA izan daitezela festen oinarri, bai herritarren artean, bai gure artera etorriko direnekin eta baita inguruarekiko ere.*

*GOZATU, EGIN IRRI, EGIN DANTZA, EGIN KANTU, IZAN ASKE ETA ASKE SENTIARAZI ALDAMENEKOA. Berriz ere familia eta lagunartean elkartzeko aukera ematen duten jai hauetan, gogoan izan ditzagun gure artetik joan direnak eta eraman zituztenak. FESTETAN ERE FALTA DIRENAK GOGOAN!*

*Ondo pasa festak zaldibitar!*

*Zaldibian, 2024ko irailean*

---

Lotura honetan egitaraua digitalki eta elebitan:
Aquí el programa de fiestas en castellano:

OHARRA:
Etxe eta auzoak alaitzeko Ikurrinak eskura dituzue udaletxean eta kultur etxean euro baten truke. (Ikurrina bat etxeko).

etxera

Argazkiak: zaldibia.org
Azalaren diseinua: Alaitz Insausti Oiarzabal

Jaiak ondo pasa!

ЩЯСЛЕВЕЙ СЯТА

Qué passis unes bones festes!

اچھی چھٹیاں گزاریں

Aproveitem bem as festas!

Have fun at the town's festivals!

चाडपर्व राम्रोसँग मनाउनुहोस

Viel Spass beim fest!

إستمتعو بالإحتفالات

Amuse-vous bien dans les fêtes!

Disfrutad de las fiestas!

SĂRBĂTORI FERICITE

Pasade boas festas!

BHAIN SPRAOI AS NA SAOIRSE!

## XIMURRAK XAMUR

# Zaintza erdigunean

**Azkenaldian asko ari gara zaintzaz hitz egiten, eta poztekoa da. Izan ere, zaintza gure bizitzen oinarria da. Zaintzak gure ongi izatearekin dauka zerikusia eta baita bizitzaren jarraipenarekin ere.**

Zaintza esan eta ziurrenik akordura datozkizu gaixo egon zareneko momentuak, ondoezen bat izan duzunekoa, ezintasun baten ondorioz beste baten laguntza behar izan duzunekoa... Edo agian etortzen zaizu burura gaur goizean kaletik zoazela auzokoak egindako diosala, etxera heldutakoan prest topatu duzun jana, *zer moduz zaude?* galdetu dizutenekoa...







Hori guztia eta gehiago da zaintza. Baina orain egin ezazu ariketa hau: zeinen aurpegia datorkizu gogora zaintza aipatzean? Ziurrenik gertuko jendea izango da, eta kasu guztietan ez bada gehienetan, emakumezkoa.

Ez da kasualitatea, gure gizartean emakumeen gain utzi baitugu zaintzeko ardura. Hauek fin bete dute esleitutako funtzio hori, egunero zaindu dute, nahiz eta zaintza lanak ikusezin eta baliorik gabe mantendu. Zaintzei esker bizi gara eta Zaldibian hori posible egin duten emakumeen ahalegina omendu nahi dugu jai hauetan.

Sarritan, beraien gogo, bizitza eta aukeren gainetik zaindu dute, eta izugarrizko balioa du horrek. Zor historiko bat dugu emakume horiekin, ezin dena itzalpean eta aitortu gabe gelditu. Izan dadila omenaldi hau herrian egiten gabiltzan zaintza diagnostikoa eta Ximurrak Xamur programa bezala, zaintza lanak eta horiek bete dituzten guztiak erdigunean jartzeko urrats bat gehiago.



# Urriak 3 osteguna

**18:30ean** Festak hasi aurreko **KALEJIRA, HERRIKO GOIZTIRI TXARANGA ETA TXANBOLINTERO TXISTULARIen** doinuekin, **ERRALDOIEK eta DANTZARIek alaiturik, OLALDETIK PLAZARA.**

**19:00etan** **TXUPINAZOA udaletxeko balkoitik.** Aurtengoan **emakume zaintzaileek** botako dute festei hasiera emango dien txupina.

**Ondoren** **ERRALDOIAK, BURUHANDIAK** eta herriko **GOIZTIRI TXARANGA.**

**20:00etan** **MONDEJUA dastatzeko aukera** herriko plazan, ardoz eta musikaz lagundurik.

**23:00etatik aurrera** **ITZAL** taldearekin dantzaldia.





# ostirala Urriak 4

**11:00etatik 13:00etara** **ZIRKO TAILERRA** haur eta gaztetxoentzat, plazan.

**11:30ean** **TOKA HERRIKOIA** plazan, Beti Gazte Elkarteak antolatuta. Jarraian, **JUBILATUEN HAMAIKETAKOA** Beti Gazten.

**17:00etan** **HAUR ETA GAZTETXOEN PLAY-BACK JAIALDIA**, Ausa-Gaztelu Guraso Elkarteak antolatuta.

**Emanaldiaren ondoren** **MERIENDA ETA DISKO FESTA** herriko gaztetxoen eskutik.

**18:30ean** **BOXEO IKUSKIZUNA** Resti Pilotalekuan, Zaldibiako Gazte Asanbladak eta GKSk antolatuta.

**20:00etan** Plazatik abiatuta **MARIBATUMORE BATUKADA FEMINISTA** herriko kaleetan zehar.

**23:30ean** **XAVI SARRIÁ I EL COR DE LA FERA** talde valentziarraren kontzertua. Obrint Pas taldeko abeslari ohia du buru, Herrialde Katalanetan katalanezko musika errebindikatiboaren boom-ean ikur izan zen.

**Ondoren** **DJ TINTZ**, Zaldibiako Gazte Asanbladak eta GKSk antolatuta.



**BARRAKAK 1€an URRIAREN 4an, EGUN OSOZ.**

**ASKE TALDEAK zapi morea egun osoz janzteko deia egiten du.**



# Urriak 5 larunbata

## MOZORRO EGUNA

| | |
|---|---|
| **12:00etatik aurrera** | **ARROZ PRESTATZE HERRIKOIA** plazan eta **MOZORROTUEN BILKURA. ARGAZKI GUNEA** ere izango da eta bazkalondoren zozketa. |
| **14:30ean** | **ARROZ BAZKARI HERRIKOIA** plazan. Norberak egin dezake arroza plazan edo etxetik eginda ekarri. Su txapak, edalontziak eta txotx-a Udalak jarriko ditu. Izen-ematea urriaren 1a baino lehen egingo da Karreane Kultur Etxean edo *eskatu.zaldibia.eus*-en. |
| **Bazkalostea** | **MALKOGARRIYAK** taldeak girotua. Tartean bingoa, mozorro lehiaketa herrikoia eta sorpresa gehiago! |
| **20:00etan** | **ZUTIK ELEKTROTXARANGA** herriko kaleetan zehar. |
| **Gauerdian** | **TRIKIDANTZ** taldearekin dantzaldia. |



# igandea Urriak 6

| | |
|---|---|
| **11:00etan** | **HERRIKO TXANBOLINTERO TXISTULARIEN GOIZ-DEIA** kaleetan zehar. |
| **11:45ean** | **OIHANA IGUARAN ETA AMETS ARZALLUS BERTSOLARIEN eta HERRIKO TRIKITILARIEN** saioa herrian zehar, Artxanberritik abiatuta. |
| **12:00 - 14:00** | **ANIZTASUN FESTA** plazan, Etxekonekok Elkarteak antolatuta. Herrian ditugun kultura ezberdinetako kideek eskainitako dantza, kanta eta janari dastaketa. |
| **17:00etan** | **DANTZA EMANALDIA** plazan, Iztueta Dantza taldearen eskutik. |
| **18:30etik aurrera** | **PILOTA PARTIDAK** Restin, Gaztelupe Pelota Klubak antolatuta.<br>Kadete eta afizionatu mailako partidak.<br>Kadeteak: Mantzizidor - Zugasti / Landa - Alberdi<br>Afizionatuak: Azketa - Oliden / Irribarria - Garmendia |





# Urriak 11 ostirala

**17:00etan** **PILOTA ESKOLAKO TXAPELKETAREN FINALAK** Toki Alai pilotalekuan, benjamin, alebin eta infantil mailan.

Xirika Kultur Elkarteak antolatuta:

**19:00etan** **ELKARRETARATZEA.**

**19:30ean** **PATATA TORTILA LEHIAKETA**ren hasiera.

**21:00etan** **TORTILEN AURKEZPENA.**

**22:30ean** **BINGO** saioa.

**23:30ean** **AFTER EGURRA TA KITTO** taldearen kontzertua.

**Ondoren** **DJ EXPUELA.**









## larunbata Urriak 12

# KUADRILLA EGUNA

**11:00etan** **HERRIKO TXANBOLINTERO TXISTULARIEN GOIZ-DEIA** kaleetan zehar, segalarien kalejirarekin.

**11:30ean** **SEGA SAIOA** Mugertza baserriko zelaian, Almitza Elkartearen eskutik.

**11:00-13:30 eta 16:30-19:30** **PUZGARRIAK** haur eta gaztetxoentzat Restin.

**13:00etan** **KUADRILEN IRTEERA JUN DA JO TXARANGAREKIN** herriko kaleetan zehar, Mugertza baserriko zelaitik abiatuta.
**ARGAZKI GUNEA** plazan eta bazkalondoren zozketa.

**14:30ean** **KUADRILLEN EGUNEKO BAZKARIA** plazan. Txartelak herriko tabernetan daude salgai urriaren 9ra arte.

**Ondoren** **KUADRILEN ARTEKO JOKOAK** eta **KALEJIRA** herrian zehar Jun da Jo txarangak giroturik.

**20:00etan** **MEXIKORTXO** mariatxi taldearen emanaldia.

**23:30etik aurrera** **AKER BELTZ** kontzertua.

**GUNE MOREA: gune informatiboa, indarkeria sexistari buruzko kontzientziazioa eta iritzi/bizipenak jasotzeko gunea, Emagin Elkartearen laguntzaz.**



# FESTETAN, ERASOEN AURREAN ZER?

## 1 NOIZ?

**ERASOAK DIRA.....**

- Iraintzea, umilatzea, kritikatzea, mehatxatzea,...
- Golpatzea.
- Jarraitzea.
- Deserosotasuna edo beldurra sortzen duen edozein jokabide!
- Baimenik gabe ukitzea edo igurztea.
- Ziztatzea, edozein instrumenturekin.
- Exhibizionismoa.
- Nahiaren aurka hurbiltzea.
- Mendekotasun kimikoa eragitea edo eragiten saiatzea.
- Sexua izateko norbait presionatzea.
- Bortxatzea.
- Adostu gabeko harremana erasoa da!

## 2 NORA JO?

- Indarkeria matxistarik gabeko informazio gunea:
  urriak 12, 20:00-02:00 plazan.
- Herriko arreta morea 24h:
  606 465 981
- Emakumeen indarkeriaren biktimentzako arreta zerbitzua 24h (Emakunde): 900 840 111
- Larrialdi deiak: 112

## 3 BABESA ESKAINI.

- **"Nola zaude?""Zertan lagun zaitzaket?"**
- Gune seguru batera bideratu: argiztatua, eseri daitekeena, behar duen denboran egon daitekeena.
- Ez utzi bakarrik, saiatu bere konfiantzazko norbait aurkitzen/kontaktatzen, bestela, gelditu berarekin.

## 4 ENTZUN.

- Errespetatu bere denbora: **"Lasai egon, nahi baduzu hemen egongo naiz zurekin."**
- **Ez hartu erabakirik bere baimenik gabe.**
- Zer egin nahi duen galdetu.
- **Ez baloratu, ez epaitu, ez jarri zalantzan bere hitza, ez estutu erabakiak hartzeko.**
- Laguntza eskatu behar bada.

ZALDIBIKO FESTAK 2024

# EDALONTZIEI BIZITZA, ZUREA DA HITZA!





**EZ DITZAGUN LURRERA BOTA!**

**ESKURATU EDALONTZIA 0,50€**

**EDALONTZIAREKIN JARRAITU PARRANDAN ETA EDALONTZI GARBIENGATIK TRUKATU**

**AMAIERAN ETXERA ERAMAN EDO BARRAN UTZI EDALONTZIAK BIZITZA LUZEA IZAN DEZAN**

ESKERRIK ASKO!

* MURRIZTU * BERRERABILI * BIRZIKLATU *




# 2023ko jaiak argazkitan










GORA HERRIA!

# 2023ko jaiak argazkitan









# 2023ko jaiak argazkitan





















ANIZTASUNA


herritik

# 2023ko jaiak argazkitan










# 2023ko jaiak argazkitan













# 2023ko jaiak argazkitan





















# 2023ko jaiak argazkitan












ZALDIBIA




ZALDIBIAKO UDALA
EUSKAL HERRIAK
INDEPENDENTZIA





EKOTRADE
TRANSPORTE Y GESTIÓN DE RESIDUOS
943 20 20 20
info@ekotrade.eus
Inaxio Berasarte Bidea, 20115 Astigarraga, Gipuzkoa
Elbarrena 7, 20247 Zaldibia. Gipuzkoa

nekine
paleten logistika
Agroaldea Olaeta 6, Zaldibia

Maixabelen
Txokoa
690760196

MERTZERIA
BEGO
EMAKUMEZKO
GIZONEZKO
ETA HAUR
JANTZIAK
✆ 611 172 779
Santa Fe Kalea Txindoki, 23
20247 ZALDIBIA

goiuri
KOOP. ELK. TXIKIA
Tel.: 609 197 063
goiuri@telefonica.net

LEUNDA
GARRAIOAK - TRANSPORTES


✆ 943 88 17 82 / 608 77 06 12
jm@transportesleunda.com
Pol. Elbarrena Pab. 7 · 20247 ZALDIBIA

**Mendizabal, C.B.**

ITURGINTZA - FONTANERIA
BEROGINTZA - CALEFACCION

✆ 609 614 552
Grupo Txindoki, 23 - 4º izda. · ZALDIBIA







Santa Fe 18
✆ 943 88 18 70

**Aluminox**

Precisión mecanosoldada en
**aluminio** e **inoxidable**

Elbarrena Auzoa · Edificio, 72 · Nº 8
Tel.: 943 88 76 08 · Fax: 943 88 56 62
20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa)
admin@aluminox.es · **www.aluminox.es**

**Gaztelu**

Iturgintza - Fontanería
Berogailu - Calefacción

**Erakusketa / Exposición**
Esteban Lasa 7 - Beasain
✆ 943 88 80 29 · faxa: 943 161 464

**gaztelu.koop@gmail.com**
**www.gazteluiturgintza.eus**



**ITXARO**
ILEAPAINDEGIA

Santa Fe, 4 bajua
Zaldibia

✆ 696 756 062

ARRESE
Jatetxea
Bazkari eta Afariak

Santa Fe Jai
zoriontsuak

✆ 943 45 95 36 ZALDIBIA







Txindoki
Txindoki Sukaldeak
943880398
info@txindoki.com
Jose Migel Iturriotz · Beasain
www.txindoki.com






GOENAGA S.A.
**ALTZAIRU HERDOILGAITZ SALEROSKETA**
✆ 943 880 663
ELBARREN AUZOA Z/G
20247 **ZALDIBIA**



Muñagorri Enea
20115 **ASTIGARRAGA** (Gipuzkoa)
✆ 943 555 647 · Mugikorra: 679 123 892

EROSLE
Zuen denda
**Santa Fe, 25 behea**
**✆ 943 88 00 46**
**ZALDIBIA (GIPUZKOA)**



Santa Fe 27
✆ 943 88 28 68

ANBU
Elektrizitatea
✆ 670 240 745



**Ogia & Kafea FELI**
**Santa Fe kalea, 27**
**✆ 662 067 690**

**txaro**

**OGIA · LOTERIAK**
**GARBIGAIDENDA**
**OPARIAK · ELIKAGAIAK**
**ESKOLAKO MATERIALA**

✆ 943 16 08 76
AZTIA-BERRI, 1 · 20247 ZALDIBIA

**Jaiak**

**MOZORRO DENDA · DISFRACES**

Elbarrena industrialdea, 72-1
20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa)
✆ 943 88 82 32
**www.jaiakdenda.com**

Nekazal Turismoa
Jatetxea

**LAZKAO ETXE**



✆ 943 88 00 44 / 615 74 59 24
ZALDIBIA

Zelaa hotel

**Hotel Zelaa**

Pol. Elbarrena 32
20247 Zaldibia

Tel.: 943 16 16 66
Fax: 943 88 45 27

info@hotelzelaa.com




**iurrelan**

Pol. Elbarrena, 25
20247 Zaldibia (Gipuzkoa)
España

Tef: 0034 943 161 596

FESTETAKO

# Aurrekontua 2024

**PLAZAKO MUSIKA** ........................................................................17.920,00 €
Itzal erromeria
Xavi Sarriá i El Cor de la Fera
Malkogarriyak
Zutik elektrotxaranga
Trikidantz
Jun Da Jo txaranga
Mexikortxo
Akerbeltz

**KIROLAK** ...........................................................................................1.600,00 €
Kirol ekitaldiak

**HAURRENTZAT** ..................................................................................... 3.196,00 €
Zirku tailerra
Puzgarriak
Play Back-a

**BESTELAKO PROGRAMAZIOA** .................................................... 2.721,00 €
Bertsolariak
Trikitilariak
Herriko musikariak
Txupinazo festa

**OTORDUAK ETA TABERNAK** ..................................................... 4.080,00 €
Mondeju banaketa
Kuadrillen eguna
Munduko arroz jana
Jubilatuen hamaiketakoa

**PROGRAMA ETA PUBLIZITATEA** ............................................. 3.920,00 €
Maketazioa eta Inprenta
Publizitatea
SGAE

**AZPIEGITURA ETA BESTELAKOAK**...................................... 23.997,78 €
Oholtza eta karpa
Garbitasuna
Komunen alokairua
Argi-indarra eta elektrizitate lanak
Soinu ekipazioa
Edalontziak
Hesien alokairua
Suak, bonbonak

**DIRU SARRERA AURREKONTUA**.............................................. 2.000,00€
Programako iragarkiak

**GUZTIRA AURREKONTUA**.....................................................**55.734,78 €**

**Euskaber SL** enpresak
argitaratzen ditu egitarau txikiak

